

1.SARRERA

Ordiziako Jakintza Ikastolako ikasleak gara, 4 gazte. Gure ingurua aztertu ondoren, inguruan biztanleria galtzen ari diren herri asko ditugula konturatu gara, adibidez: Gaintza. Beraz, bertan, baserri-eskola bat garatu dezakegula pentsatu dugu, eta horretarako, Canva ereduaz baliatu gara. Gure ideia nagusia udaleku batzuk egitea da, izan ere gure lehendabiziko helburua umeek ikastea da, eta gure jakinduria barneratzen laguntzea.

Azkenean arazo larri batez ohartu gara, umeak geroz eta gehiago bizi dira hiri inguruan, hiriko bizimodua eta ohiturekin, baina, non geratu dira baserriko ume eta ohitura horiek? Hauek berreskuratzea izango da gure helburu garrantzitsuena eta ondo pasatzea noski. Gainera agenda 30eko hainbat helbururekin ere loturiko hainbat gauza landuko dituzte, kontsumoa eta ekoizpena jasangarriagoak izatea eta lurraren ekosistemen kontserbazioaren garrantzia adieraziko diegu.